



[Irudiak](#) [Bideoak](#) [Azoka](#) [Bixi-Bixi](#) [Zorion Agurrak](#) [Eskelak](#) [Txokoa](#) [Denda](#) [Harpidetzak](#)



[GAIAK](#) [HERRIAK](#) [PAPEREKOA](#) [GOIBERRI](#) [IRITZIA](#) [HARA!](#) [FESTAK](#) [AGEI](#)

[Azken ordua](#) ★ [Goierriko artzainek 7 domina lortu dituzte World Cheese Awards sarietan](#) ★ [La Lezek gazta](#)

Nork [Lierni Elortza](#) -Aza 20, 2014

SAGAR ERREZILA, FERIA EGUNEKO PROTAGONISTA

Udazkeneko bertako fruituen eskaintza osatzeko, lehen kakiak ere salgai dira; baita baba txikia ere, askorentzat ezezaguna, besteentzat estimu handikoa.

Aspalditxo ekarri zituzten feriara aurreneko errezil sagarrak, arbolatik eroriak edota harrak joak; laister jan behar direnak, alegia. Orain, ia onenak ere salgai jarri dituzte. Denetik ikusten da; prezioa, kalitate eta neurriaren araberakoa: ale txiki txikiak, kiloko 50 zentimoan; «sagardoa egiteko erabiltzen dira horiek» aipatzen zigun Gabiriako Oñatibia Txikiko Mirenek. Alerik ederrenak berriz, kiloko 5 euroan zituen Lasak.

Aurten nolako urtea joan den galdezka hasita, denetik entzun dugu ekoizleen artean: «duela bi urteko erdia» izan dela zioten batzuek, «oso urte ona» izan dela besteek.

Sagar mota honen izenari buruz ere bada bitxikeriarik. Izan ere, hemen hain arrunta den errezil deitura horri, 'lbarbi' deitzen diote Errezil herrian, hango auzo baten izena hartua baitu sagar mota honek. Eta Errezilgo Jose Antonio Aizpuruk esan digunez «Zarautzen errege sagarra esaten diote, gainkaldean duen koroe edota harresi pinportadun horregatik». Hori eta txurten motza dira omen dira sagar honen ezaugarriak. «Toki egokian jasoz gero, asko irauten duen negu sagarra da hau. Oraindik konpotan edota errete jateko hobia dago, geroxeago gordina».

Bestalde, Aramako ostatuko Ane Otegi izan zen atzo sagar errezilla hartu eta plazako sukaldean aritu zena.

Gainontzeko fruituei begira jarrita, lehendabiziko kakiak ikusi genituen, Aramatik ekarriak. Patxi Arizmendiren esanetan, «hemen ez da hain ezaguna eta ez dute estimazio handirik izaten, baina nik arbola hau etxean betitik ezagutu dut». Mizpira mota bat dela esan daiteke, «japoniar mizpira» esanez ere ezaguna baita; horiek bezalaxe, gogorrak daudela bildu eta ustelak daudenean jaten dira.



Ane Otegi sukaldaria, Jose Antonio Aizpururen postuan. Argazkia: D'elikatuz

Baba txiki berria salgai

Bestalde, neguko jaki beroen artean, baba txikia aipagai dugu. Askok ez dute sekula probatu, gazteek bereziki, baina gustuko duenak ez du hori jan gabe pasatzen negua. Patxi Atienza hasi da aurtengo berria ekartzen; «frantsesa da saltzen dena, hemengoak baino azal finagoa du eta berezoek nahiago izaten dute». Iazko prezio berean da, kiloa 2,80 euroan; otordu ederra prezio onean prestatzeko aukera ona.

Onddo garaia ere badoa; atzo dezente zegoen baina ez besteetan adina; 100 bat kilo onddo eta beste hainbeste esnegorri.

Txiletik Goerrira, txokoz txoko

Txileko Gobernuako Nekazaritza Ministerioko eta UNAF (Unidad NAcional de Agricultura Familiar) elkarteko hainbat kideei harrera egin zien atzo Igor Eguren alkateak Ordizian. Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta Euskal Herrian dabilta, batera eta bestera, hamar egunez. Ordiziako azoka bisitatu ondoren, Segurako Ondarrera eta Zaldibiako Kixkurgunera joan ziren. Janire arrondo



- Aste honetako [prezioak](#)

PARTEKATU ARTIKULU HAU

UTZI EKARPEN BAT

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA

**Errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azoka igandean Gabirian**

Nork [Maialen Igartua](#) - Aza 12, 2014
Gabiria

**Azaroa turmoi hotsekin eta euripean hasi da**

Nork [Goierriko Hitza](#) - Aza 6, 2014
Azoka

**Errezil sagar eta fruitu eta barazkien lehiaketa egin dute Beasainen**

Nork [Goierriko Hitza](#) - Aza 4, 2014
Gizartea

**Mizpirak, intxaurrak eta oliba freskoak**

Nork [Goierriko Hitza](#) - Urr 23, 2014
Azoka

GOIERRIKO HITZA

AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK

**Seaskaren aldeko partida izango da Hernani eta Ampo Ordiziaren artekoa**

Nork [Janire Arrondo](#) - Aza 21, 2014
Kirola

Ostadar Mendi Astearen bihotza

Nork [Otamotz.com](#) [Urretxu-Zumarraga](#) - Aza 21, 2014
Kirola

**Bertso saioa egingo dute gaur Legazpin, HITZAren 10 urteurrena ospatzeko**

Nork [Goierriko Hitza](#) - Aza 21, 2014
Kultura

Goierriko Hedabideak S.L.

Oriamendi 32, 20200 - BEASAIN- Tel.: 943 16 00 56 - Faxe 943 889 612 / Iparragirre, 11 20700 - URRETXU -



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITI
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuorde

 MEGAKONEK BAT ERTEN DU CREATIV COMMONS ERABERRI LIZENTZIA BAKIN